



Amaia Dulce - Alazne Susilla

Aixerrota BHI, 14-15

Aurkibidea

Fernando Morillo	3
Sarrera	3
<i>Pasio krimena</i>	
Kokapena	4
Gaia	4
Argumentua	5
Istoriaa	5
Pertsonaiak	8
Egituraketa	9
Baliabideak	9
Iritzia	11
Bibliografia eta Webgrafia	13

Fernando Morillo

Fernando Morillo Grande 1974an Azpeitian (Gipuzkoa) jaio zen euskal idazlea da.

Fisika eta Filosofia ikasketak egin zituen, baina gaztetatik literaturaren bideari ekin zion. Gazte literatura landu du gehienbat eta hainbat sari irabazi ditu genero horretan. Bere eleberriak ohikoak dira ikastetxeko irakurgai moduan. Saiakera ere landu du.



1999. urtean, Donostia Hiria irabazi zuen *Gudaoste ametsak* ipuinarekin. Handik aurrera, beste sari batzuk ere etorri zitzaizkion. Besteak beste: Beasaineko Igartza Literatur beka (*Ortzadarra sutan* liburua jaio zen hari esker), CAF-Elhuyar Dibulgazio-lehiaketan pare bat sari, Gabriel Aresti Bilboko sarian ere beste pare bat sari... eta, hara ezustea eta poza, Euskadi Saria 2003an! (*Izar-malkoak* liburuarekin

2011. urtean Gaumin argitaletxea sortu zuen, batik bat haur eta gazte literatura bultzatzeko asmoz. Ikastetxeak eta euskaltegiak bisitatu eta irakurleekin topaketak gogoko dituen idazlea da.

Sarrera

Pasio krimena Fernando Morillo idazle azpeitiarraren liburua da. 2013an argitaratu zen, Gaumin argitaletxearen eskutik. Denbora gutxi egon denez salgai, oraingoz edizio bat baino ez du izan.

Intrigaz beteriko nobela bizi-bizia da, grinez eta krimenez josia.

Liburua hirugarren pertsonan idatzita dago, narratzaile orojakile baten hitzekin. Narratzaile honek pertsonaiak, haien giroa eta pentsamenduak ezagutzen ditu. Horrek, irakurleari ikuspuntu zehatza eta argia izatea laguntzen dio.

Kokapena

Istoriaa Gipuzkoan kokatuta dago, bi herritan gehienbat: Donostian eta Irunen. Xoel izeneko mutikoa Donostiara hurbiltzen da bere antzinako neska-laguna laguntzera. Neska honek, June, heriotza mezuak jaso ondoren, Xoeli laguntza eskatzea erabakitzen du. Bidean, Ainitze izeneko lagunarekin elkartzen da eta biek batera Juneri eta bere familiari laguntzen saiatzen dira.

Idazleak ez du datarik aipatzen (bakarrik egunak eta orduak), baina pertsonaien jokabideei esker, gaurkotasuna duela badakigu. Adibidez, gazteek erabiltzen duten teknologia berria (mugikorrak eta tabletak), hori ezinezkoa izango litzatekeelako orain dela berrogei urte gutxi gorabehera gertatzea, baita arma modernoak (pistolak).

Leku eta datu erreal ugari ageri dira: Ficoba Erakustazoka (Irun), Higer itsasargia (Hondarribia), Donostiako Arkitektura Fakultatea, Hendaiako hondartza...

Bestetik, narrazioa burutzeko, narratzaileak lehenaldia erabiltzen du, hau da, gertatuak diren ekintzak kontatzen ditu (elkarrizketetan izan ezik).

Gaia

Juneren familia obsesiboak heriotza-mehatxuak jaso ondoren, Xoelek eta bere lagun Ainitzek laguntza eskaintzen diete, baina, neska bat hilda agertzen denean eta Juneren aita desagertzen denean, guztiak batera lan eginez misterioa argitu behar dute.

Argumentua

Xoel filosofo gaztea Donostiara abiatzen da bere antzinako neska-lagunak laguntza eskatu ondoren. Bidean, Ainitze topatu eta biak Junerengana joango dira. Antza denez, Juneren familiak hainbat heriotza-mehatxu jaso ditu, eta hori dela oso kezkatuta daude. Hilketa pare bat gertatu ondoren, eta hiru lagunak inteligentziari esker, misterioa argitzea lortuko dute, eta hiltzailea nor den asmatuko dute.

Istoria

Xoel Ainitzeren (lagun bat) zain zegoen Zenonek mugikorrera deitu zionean. Zenon bere antzinako neska-lagunaren aita zen (June). Bat-batean Xoel zegoen lekura joan eta hura jipoitzen hasi zen, abisatu ziola esan zion eta ez zuela jasango inork bere alabari minik egitea. Ainitze ailegatzerakoan, filosofoa (Xoel) odolez beterik zegoen eta Xoelek zer gertatu zen azaldu zion.

Hori gertatu baino lehen, Junek Xoeli deitu zion laguntza eske. Dirudienez, norbait mehatxuka ibili zitzaion eta oso urduri zebilen.

Aldi berean, Sebastianek (Zenonen lankide bat) Juneri deitu zion neska bat fakultatean hilda agertu zela esateko (Nora). Nora Zenonen ezkutuko maitalea zen, eta justu bere hilketa gertatzean desagertu zen. Hori dela eta, Zenonek zerbait ezkututzen zuela susmatzen zuen Sebastian, "Trolley" motako maleta berde bat diruz beterik, hain zuzen ere. Sebastianek maleta hori nahi zuen eta horregatik Jabi eta "Txiki" kontratatu zituen Zenon aurkitzeko eta maleta hartzeko.

Juneren etxera ailegatu eta Ainitzek Xoelekin batera misterioa argitzen saiatuko zela esan zuen. June eta Xoel hizketan ibili ziren, bitartean Udazken eta Ainitze batera egon ziren logela batean. Hala ere, Xoelek Juneri bere aitarekin gertatutakoa (jipoitu zuela) ez kontatzea erabaki zuen. Misterioa argitzen hasteko Rafa (abokatu surflaria) ikertzen hasi ziren, baina honek ez zekien ezer Zenonen desagerpenari buruz.

Geroago, Arnau ikustera joan ziren (Zenonen semea). Arnauk bere familiakoengandik baztertzea erabaki zuen duela asko eta ez zuen bere aitari buruz hitz egiteko asmorik, egolatra neurotikoa zela uste zuelako eta ez zitzaion interesatzen ezer kontatzea Ainitzeri –ez zekien ezer–. Hala eta guztiz ere, Ainitze berarekin geratu zen berarekin egoteko tarte batean.

Bitartean, Xael Sebastian ikustera joan zen, baina honek ez zion ezer argitu. Kontatu zion gauza bakarra izan zen Zenonek jende askori dirua zor ziola. Xael gelatik irten bezain laster, Jabik Sebastiani deitu zion Udazken harrapatu zutela komunikatuz. Haien plana Udazkeni gauza txarrak egitea zen, hark aita non zegoen aitortu arte. Jabik ez zuen neska jipoitu nahi eta Sebastiani gezurra esan zion.

Ondoren, Zenon eta Xael ezkutuan geratu ziren Baztan tabernan. Zenonek Nora hil ez zuela esan zion gazteari, baina hau ez zen asko fidatu. Gero, maletari eta diruari buruz hitz egin zuten. Azkenean Juneren aita joan zen eta inori ez kontatzeko esandakoa esan zion.

Arratsalde horretan Junek ezezagun baten dei bat jaso zuen. Udazken bahiturik zeukala esan zuen eta aitari eraman zuena itzultzeko esan behar ziola. Denbora galdu gabe, Xoeli deitu zion eta Udazkenen bahiketarena kontatu zion. Orduan, Xael Arnauren eta Ainitzeren bila joan zen eta hiruren artean erabaki zuten Ainitze Unibertsitateira joango zela maletaren bila eta bi mutilak Ficobara abiatuko zirela Junerekin elkartzera.

Behin Ficoban, Udazken salbatzeko plan bat pentsatzen ari ziren bitartean, neska atetik sartu zen, odolez beteta, baina bizirik. Arnau, aitaren plan gaizto bat zela pentsatuz, Sebastianekin hitz egitera joan zen. Baina, zoritxarrez, Ainitze eta Arnau Unibertsitatean zeudenean harrapatu eta bahitu egin zituen Sebastianek.

June eta Xael oso kezkatuta geratu ziren ez bata ez bestea ez zirelako Unibertsitateetik bueltatzen, eta Zenonekin kontaktuan jartzea erabaki zuten. Baina ez zuten bere telefono zenbakirik, mezu zabal bat egitea bururatu zitzaien. Orduan, Juneri plan bat bururatu zitzaion: erakusketan zituen material guztiekin izugarritzko ekaitzak sortuko zituen, eta horrela bere aitaren arretea deituko zuen.

Xoel herriko dorre altuenera igo zen eta handik, Junek emandako pausu guztiak jarraituz, tximista eta trumoi ikaragarriak sortu zituen. Inguruko herrialdeetako biztanleek fenomeno horren berri izan zuten, ikaragarri zaratatsua eta beldurgarria izan baitzen. Xoel Ficobara zihoanean, Zenonen deia jaso zuen, eta esan zion Ainitze eta Arnauk desagertuta zeudela eta ziurrenik Sebastianek izango zituela harrapatu. Bat-batean, Xoeli ideia bat bururatu zitzaion: Sebastiani eta bere konplizeari esango zieten maleta berdea zutela eta haren truke, euren lagunak askatu beharko zituztela.

Junek, Sebastiani deitu eta ordu erdi zutela maleta hartzeko eta lagunak askatzeko esan zion. Bi gizonak, Sebastian eta bere konplizea, Ficobara ailegatu ziren eskopeta bat eskueetan. Baina maleta hartu zutenean eta konturatu zirenean egunkariz beteta zegoela, Junek sortutako kotoi itxurako laino zuri eta sendoak gela osoa estali zuen, eta ezin izan zuten haien kontra joan.

Inork espero gabe, Udazkenek eskopeta hartu eta tiro bana egin zien bakoitzari, eta bi gizonak momentuan hil ziren. Harriturik geratu ziren gelan zeuden lagunak eta Udazken gertatutako gauza guztiak poliki-poliki azaldu zizkien: bere aita Norarekin maiteminduta zegoela konturatu zen, baina ohartu zen Norak nahierara menderatzen zuela, txotxongilo bihurtzeraino. Azak ontzeko, lagun batek esan zion maletarena bazekiela, eta Nora ikustera joan zen. Neskatoa konbentzitzen saiatu zen bere aita bakean uzteko, baina Norak barre egin zuen Zenonen bihotza eskuetan zuela esanez. Orduan, sutan jarri zen eta hil egin zuen. Bere bihotza hartu zuen, aurretik esandako esaldia egiaztatzeko eta maleta berdea hartu zuen. Hilketari Sebastiani leporatzeko asmoa zuen, baina ez zen atera berak pentsatu zuen bezala.

Azkenean, Udazken ospitale batera sartu zuten, tiroaren *shocka* gainditzeko. Zenonek diru guztia bueltatu zuen eta Xoel bere bi antzinako neska-lagunekin lagun moduan geratu zen.

Pertsonaiak

Nahiz eta liburu honetan pertsonaia ugari agertu, benetan garrantzi handiena hartzen duena Xoel da. Pertsonai garrantzitsuenak hauek dira:

Xoel. Filosofo gaztea da. June laguntzera joaten da Donostiara. Oso ausarta eta azkarra da.

June. Heriotza-mehatxuak jaso dituen neska da. Xoel eta bera maiteminduta egon ziren. Klimaren oinarrizko zientziaren inguruko kontu batzuk azalduko dira haren eskutik. Tximistak nola sortzen diren (eta sor daitezkeen), edo sumendien inguruko gorabeherak.

Ainitze. Zientzialari antzekoa. Beti logika erabiltzen du bere eguneroko bizitza gauzatzeko. Zeruko misterioak argitzeko bihurtu zen zientzialari. Hendaian bizi da bere katu Aryrekin.

Udazken. Juneren ahizpa da. Dantza egitea oso gogoko du. Azkenean deskubritzen dute bera izan zela Nora hil zuena eta maleta berdeko dirua lapurtu zuena.

Arnau. Juneren eta Udazkenen neba da. Musikaria da. Hasieran hiltzailea bera izan dela pentsatzen dute.

Zenon. Juneren aita da. Nora (hildako neska) bere maitalea zen. Oso pasionala da.

Sebastian. Zenonen lankidea da, baina ihes egiten duenean, bera harrapatzea eta eramandako diru guztia berreskuratzea bihurtzen da bere helburua. Azkenean, hil egiten dute.

Egituraketa

Liburu honen egituraketa lineala da. Hau da, gertaerak orden kronologikoan kontatzen ditu. Gainera, liburua hiru atal nagusitan banatzen da: I *Tximeleta Efectua* (12 kapitulu), II *Kaosa* (30 kapitulu) eta III *Ariadnaren haria* (14 kapitulu).

Kapitulu bakoitza izenburu txiki batekin adierazita dago, eta kapitulu batean pertsonaiak edo eszenatokia aldatu dela jakinarazteko lerro bat erabiltzen du.

Noizbehinka, kapituluaren sarreran, eszena hori non gertatzen den eta ze ordutan adierazten du idazleak.

Baliabideak

Elkarrizketa eta deskribapen ugariarekin osatuta dago liburua, eta horietan, irakurketa errazteaz eta atseginagoa egiteaz aparte, informazio asko ematen da pertsonaien arteko erlazioei buruz: trapu zahar asko ateratzen da euren artean; baina beti ere gertaeren harira, eta ez edozein momentutan.

Eleberri honek hainbat baliabide ditu. Narratzaileak baliabide horiek erabiltzen ditu irakurketa errazagoa egiteko. Bi baliabide mota erabiltzen ditu: fonikoak eta semantikoak.

BALIABIDE FONIKOAK

Onomatopeiak. Hitzen bidez egindako naturako soinuen imitazioa.

Eta entzun egin zuen. Perkusioa. Antzinako kirikoketa (...) Ttakun-ttakun, ttakun-ttakun. Ttakun. (71)

Ainitzek Arnauren esku bateko mugimendua antzematen zuen, tipi-tapa, tipi-tapa. (149)

Tanta kontaezinek autoaren sabaiaren kontra mailukatzen zuten, kinki-kanka, kinki-kanka, erreka bihurturik zituzten errepede bazterrak. (161)

Ezin izan zion zion aiene jarraitu bati eutsi:

—*Aiaiaiaeiiei...* (52)

BALIABIDE SEMANTIKOAK

Konparazioa: bi elementu konparatzen ditu.

Bursoila urruntzen hasi zen, hiena baten moduko irribarrez. (11)

Xoelek sudurra ukitu zuen. Hantura apur bat jaitsi zen, baina oraindik ere kristalezko sumendi bat izango balu bezala sentitzen zen. (31)

Dantzariaren eskuak hauteman zituen berengana hurbiltzen, azazkal beltz eta luzeekin, urruntzen atzera, airezko laztan batean biltzen bezala. (51)

Orduan burua makurtu, eta zezen batenmodura jo zuen Xoelengana. (107)

Beharbada. Merezi... Merezi hitz lausoa da. Egia bezala. (197)

Pertsonifikazioa: bizigabeei giza nolakotasunak eranstea.

Isiltasuna nagusitu zen pabilioian. Amaraun eta zorabiozko isiltasuna. Grinatsu eta biluzia. (127)

Tximisten eta iluntasunaren arteko dantzak etengabe mudatzen zituen itzalak pabilioian. (163)

Metafora: bi osagaien arteko antzekotasuna adierazteko, baina zeharka.

Xoel eternoa eta hondogabea. (13)

Udazkenek begi urdinak josi zizkion (49)

Nahiz eta tximeletaren begiradak garrak beraiek kiskaliko lituzkeen (49)

—*Hegan! Zentzu batean baino gehiagotan. Airea zeharkatzen dueten amaraun ikustezinetan zitzilikatzen zen, flotatzen.* (50)

Xoelek deabuak harturik itzuli nahi zuen Ficobara... (113)

Esamoldeak. Zeozer adierazi nahian sortutako esaldi eginak dira.

Burutik zarta eginda zaude. > burutik jota egon (117)

Hau marka! > hau bai hau (122)

Badakit higuin duzula aita > gorroto, nazka

Ziria sartu (138)

Muturrak hausten joan (161)

Hankazurrun begiratu (175)

Iritzia

Hasiera emateko iritzi honi, liburu berezia dela esan dezakegu, inoiz ez baitugu liburu honen antzekorik irakurri. Gustatu zaigun arren, zati batzuk gogorrek izan dira irakurtzeko, gehienbat hilketei buruz hitz egitean.

Oso liburu aberatsa da; hainbat baliabide erabiltzen baititu. Baliabide hauek irakurleari hainbat sentimendu transmititzen laguntzen dute eta pertsonaienganako hurbiltasuna eragiten dute. Honen ondorioz, askotan liburuaren barruko beste lagun bat zarela eta istorioan sartuta zaudela sentitzen duzu.

Lexikoa dela-eta, klasean landutako hitzegitxoari esker, ez dugu zailtasun handirik izan testua ulertzeko eta horri esker irakurketa erosoan izan da. Atera dezakegun alde negatibo zera da, izen asko ageri direla, hasieran pixka bat korapilatsua iruditu dezake, baina ondo azalduta dagoenez ondo moldatu gara.

Atsegina egin zaigun pasarte, Xael Zaisa Dorrera igotzen denean, tximistak sortzera:

Egin beharko. Hantxe zen orain Xael, Zaisa Dorreko sabain, kablea eta suziak prestatzen, belarriak tapoi banaz estalita.

Sabaiko atearen atzean babestu ondoren, lehenbiziko suzia jaurti zuen, kableari lotua.

Teorian, suziak goiko laino bel-beltzeraino eramango zuen kablea. Laino oooso negatiboa eta lur oooso positiboa elkartzean...

Begiak itxi.

Itxaron.

Itxaron.

Ez zen ezer gertatzen.

“Putza”.

Ez zuen funtzionatu?

Orduan etorri zen argizko eta soinuuzko leherketa eskerga.

BURRUNNNNN!

Aldiz, gutxien gustatu zaigun zatia, Udazken bahitzen dutenean eta ohean lotzen dutenean:

Udazken ohe bigun baten gainean zegoen etzanda, eskumuturrak eta orkatilak lotuta, ahoa estalita. Egokitu zitzaion koreografia berri hura goxoa ez bazen ere, bere burua kontrolatzen ahalegindu zen dantzaria egiten zekiena egiten zuenean bezala.

Guztiz gomendagarria dela uste dugu, Noraren hilketa gertatzen den momentutik ezinezkoa da liburua irakurtzeari uztea. Atera dezakegun zaliltasun bakarra da izen asko ageri direla, hasieran pixka bat korapilatsua eman dezake baina, ondo azalduta dagoenez, ondo moldatu gara.

Alde batetik, ez da liburu astuna izan irakurtzeko, larbutxoa eta gure adinerako egokia baita. Bestalde, irakurtzeko erraza den idazkera atsegina eta argia darabil idazleak, egoerak eta gertaerak ondo esplikatur. Eta gertatuko denaren jakin-minak bultzatzen du irakurlea aurrera jarraitzera, amaieran korapilo osoa askatzen den arte.

Misteriozko eta pasiozko eleberri bat irakurriz ondo pasatu nahi duen edonork badu hemen aukera ezin hobea, *Pasio krimena* gustura irakurtzen baita, eta interesgarria da amaierara arte.

Bibliografia

- *Pasio krimena*, Fernando Morillo. Gaumin
- *Elhuyar hiztegia*, Askoren artean. Elhuyar.

Webgrafia

- http://www.fernandomorillo.eu/Liburu_Pasio_krimena.html
- http://es.wikipedia.org/wiki/Fernando_Morillo
- <http://www.erabili.com/lantresnak/hiztegiak/elhuyar>
- [http://atalak.eus/nola egiten da](http://atalak.eus/nola_egiten_da)